

## MÓDULO II: LAS SUBVENCIONES CONCEDIDAS POR LAS ENTIDADES PÚBLICAS. JUSTIFICACIÓN, COMPROBACIÓN Y REINTEGROS

### 1 INFORMAZIO OROKORRA

- Prestakuntza arloa** Ekonomia eta Ogasuna
- Modalitatea** Lineakoa
- Hizkuntza** Gaztelania
- Iraupena** 20 ordu

#### Hartzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak. Administrazio publikoek emandako diru-laguntzen prozeduren kudeaketan ari diren langileak.

#### Irakasleak

Alfredo Barrio Gil, Kontu-hartzaile Nagusia Gasteizko Udalean

Elvira Arcos Alberti, Kontu-hartzaile teknikaria Gasteizko Udalean

#### Egutegia

**1** Matrikulazioaren azken eguna  
**Maiatzaren 3a:** administrazio orokorra (\*)  
**Maiatzaren 10a:** beste administrazio batzuk  
(\* **Oniritzi epea maiatzaren 6tik 10era da**)

**2** Bajen jakinarazpenak  
**Maiatzaren 31ra arte**

**3** Ikastaroaren aldia  
**Ekainaren 3a:** hasiera eguna  
**Ekainaren 28a:** amaiera eguna

**4** Bideokonferentzia saioa  
**Ekainaren 11a** **10:00 - 11:00**

#### Ikastarorako sarbidea

<https://autoprestakuntza.euskadi.eus>. Ikastaroa hasi baino bi egun lehenago, mezu elektronikoko bat jasoko duzu, erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin. Gogoratu ikastaroa hasten den egunera arte ez dela sarrera gaituko.



## Prezioa

○ 172,20€

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.(uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.)

## 2

### IBILBIDEA

Hau da ikastaroaren gaiari buruzko prestakuntza-ibilbidea.



Ikastaro aurreratuan matrikulatzeko, ezinbestekoa da II.Modulua gaindituta izatea.



**I.Modulua** Módulo I: Las subvenciones concedidas por entidades públicas: visión general



**II.Modulua** Fitxa honen xede den ikastaroa.



**III.Modulua** Curso avanzado sobre la gestión de las subvenciones.

## 3

### HELBURUAK

#### Helburu orokorrak

Diru-laguntzen Legearen eta berau herri-administrazioetan garatzen duen araudiaren eragina ezagutzea.

#### Helburu zehatzak

Araudiak barne hartzen dituen justifikazio- eta egiaztatze-prozedurekin loturiko gaien inguruko ezagutza xehea eskuratzea.

#### Gaitasunak

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:

- Diru-laguntzen justifikazioaren espedienteak izapidetzeko.
- Diruz lagundu nahi den jarduerarekin loturiko alderdien behar bezalako egiaztatzea egiteko, baita jarduera egiteko gastuena ere.



## 1. MODULUA

### Diru-laguntzen justifikazioa

1. Diru-laguntzen gastuaren justifikazioaren alderdi orokorrak
2. Justifikaziorako sitema
  - Justifikazio-kontua
  - Justifikazio-kontu erraztua
  - Modulu bidezko justifikazioa
  - Kontu-auditorentzako justifikazio txostena
  - Garapen eta lankidetzaren esparruko berezitasunak

## 2. MODULUA

### Diru-laguntzak egiaztatzea

1. Diru-laguntzak egiaztatzea
2. Justifikazio-kontuen eredia, txostenak, eranskinak, etab.

## 3. MODULUA

### Diru-laguntzen itzulera eta finantza-kontrola

1. Dirua itzultzeko arrazoiak
2. Dirua itzultzeko jardunbideak
3. Diru-laguntzen finantza-kontrola. Kontu-hartzaile funtzioa

### Metodologia:

Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamikoa bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 4 gai ditu, test itxurako ariketak eta jarduerak desberdinak. Ikasleen ikastaldia osatzeko bideak: ikastaroko dokumentaziora eta irakurtzeko esteketarako sarbidea; foroetan parte hartzea; ariketa praktikoak eta galdetegiak egitea, eta tutorearekin beti harremanetan egotea, plataformaren bidez.

Irakasleak ikastaro hasieran eskatuko die ikasleei azaltzeko haien igurikimenak, zalantzak, kontsultak edo eta ikastaroan zehar landu nahiko lituzketen alderdiak. Ikasleek azaldutako gaiak prestakuntzako plataformak eskaintzen dituen baliabide desberdinen bitartez landuko dira: jarduerak, foroa, etab.



### Ebaluazioa

Ikastaroaren helburuak betetzen direla bermatzea izango da ebaluazioaren helburua.

Ikastaroaren ebaluaketak test itxurako 2 ariketa eta 2 kasu praktiko ditu. Jarduera batzuk on-line egin behar dira eta beste batzuk ordenagailuan gero plataforma birtualean atxikitzeko, tutoreak zuzendu eta lanaren feedback-a bidali dezan. Halaber, edukiak ikasteko eta jarduerak egiteko gomendatutako epeak markatuko ditu.

### Aprobetxamendua

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Ikastaroko 3 jarduera gutxienez gainditzea (kasu praktikoak eta test bat)
- Bideokonferentzia saiora bertaratzea

### Ziurtagiriak

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

### Baldintzak

Posta elektronikoko kontu korporatibo bat, ikastarora joango den pertsona modu unibokoan identifikatzeko. Ez dugu onartuko postu bati esleitutako edo partekatutako posta-konturik.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun-printzipioa betetzeko.

### Eskakizun teknikoak

- Nabigatzaileak: Microsoft Edge, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Interneterako konexioa, eta YouTube zerbitzuko atzipena zabalik

### Laguntza

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) 440
- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara

Administrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: [prestakuntza@ivap.eus](mailto:prestakuntza@ivap.eus)